



BEHOBIA-SAN SEBASTIÁN 2026RAKO DORTSALEN ZOZKETAREN ARAUDIA

Behobia-Donostiako 61. ediziorako dortsalen zozketaren erregistroa 8 egunez irekiko da, **2026ko apirilaren 14ko 12:00etatik apirilaren 22ko 23:59ra**

Dortsal kopurua: lehen faseko gainerako dortsalak baino ez dira sartuko zozketan, eta notario aurrean egingo da **2026ko apirilaren 29an**.

Zozketa egin ondoren, **maiatzaren 5eko 10:00etatik maiatzaren 11ko 23:59ra bitartean formalizatu behar da behin betiko izen-ematea**.

Zozketan esleitutako plazak, **kontsumitu gabeak, ltxarote-zerrendan** sartuko dira.

Zozketaren baldintzak

- Eskaera bakoitzeko gehienez 3 korrikalari erregistratu ahal izango dira.
- Zozketan parte hartzeko **euro bat (itzuliko ez dena)** ordainduko da erregistratutako pertsona bakoitzeko. Bildutako diru guztia Behobia-San Sebastián Proiektu Solidarioetara bideratuko da.
- Korrikalari bakoitzaren erregistroan eman beharreko datuak: izena, abizenak, jaioteguna, NAN edo pasaportea, helbide elektronikoa eta telefonoa. Datu horiek lasterketan parte hartu nahi duen pertsonarenak izan behar dute eta ezingo du aurretik izena emanda edo zozketan erregistratuta egon. Zozketan erregistratzean adierazitako datu BAT ere ezin izango da, lasterketaren izen-ematean aldatu. Ezin da datu pertsonalik edo posta elektronikorik bikoiztu.



- **OSO GARRANTZITSUA:** korrikalari bakoitzak **POSTA ELEKTRONIKO BAKAR ETA OPERATIBO** batekin erregistratu beharko du. Erregistroa eta ordainketa behar bezala egin duen parte-hartzaile bakoitzari mezu bat bidaliko zaio bere postara, zozketan parte hartzeko baieztapena eskatuz. **Baieztapena apirilaren 23ko 23:59 arte egin ahal izango da.**
- Erregistro-eskakizun horiek betetzen ez badira, baliogabetu egingo dira.
- **Apirilaren 24tik aurrera, baieztatutako eskaera guztiei zenbaki bat esleituko zaie zozketarako** (aldez aurretik egiaztatuko da eskaerari lotutako pertsona ez dagoela jada lasterketan izena emanda).
- Zozketarako zenbakiak esleitzeko, erregistro-ordena hartuko da kontuan (data eta ordua), eta zenbakiak ordena korrelatiboan esleituko dira, txikienetik handienara. Prozesu berean batera egindako erregistroek segidako zozketa-zenbakiak jasoko dituzte.
- **Mezu elektroniko bat bidaliko zaio baieztatutako erregistro-eskaera bakoitzari, parte hartzeko zenbakiarekin.** Mezu horien bidalketa apirilaren 24an hasiko da, eta baliteke amaiera egun batzuk atzeratzea, bidalketa-kopuru handia dela eta.
- Zozketaren ondoren, zenbaki sarituen zerrenda www.behobia-sansebastian.com webgunean argitaratuko da, eta **mezu elektroniko pertsonalizatua bidaliko zaio** saritutako pertsona bakoitzari, **izen-ematea formalizatu ahal izateko erabili beharko duen lokalizatzaile batekin.**
- **Maiatzaren 5eko 10:00etatik maiatzaren 11ko 23:59ra bitartean formalizatu behar da izen-ematea** (izen-emate osoa egin behar da eta ordaindu). **Izen-ematea edozein pertsonak egin dezake** (erosleak) eta prozesu berean nahi dituen korrikalariak inskribatu ahal izango ditu. Horretarako, **korrikalari**



bakoitzari lotutako lokalizatzailea beharko du.

- Zozketan esleitutako, **eta kontsumitu gabeko plazak, Itxarote-zerrendan** emango dira. Plaza lortzen duten zerrendako pertsoneri mezu elektronikoko baten bidez jakinaraziko zaie zer lokalizatzaile erabili behar duten eta zer egunetan formalizatu dezaketen izen-ematea.

Hemen adierazitakoa salbuetsita, [Lasterketaren araudian](#) ezarritakoaren baitan geratzen dira dortsalaren salmenta eta lasterketan izango duen parte-hartzea.